

# Udal talde politikoaren iritzia



## JAIETAN ERE, EZ BETI DA EZ

Jaietan jai!!!! Itzuli dira jai-jarduerak eta -topaketak, besteak beste paellak eta jada egin diren Santa Anako jaiak; eta San Inazioko, Romoko, Portu Zaharreko eta Mesedeetako jaiak hasiko dira. Bi urte igaro dira jaiak ezagutzen genituen moduan ospatu barik; hortaz, 2022ko uda eta jai-denboraldia gogo handiz bizitzen ari gara, eta parte-hartze izugarria egon da jai-, jolas- nahiz aisialdi-jarduera guztietan.

Horrenbestez, askatasunari, errespetuari eta askatasunari dagokionez uste sendoak ditugunez, berriz ere aldarrikatu nahi dugu EZ BETI DELA EZ. Berriz aldarrikatu nahi dugu jaietan, bizitzako esparru guztietan moduan, bakarrik bai dela bai. Jaietan, Getxon ere izan nahi ditugu eraso sexistarik gabeko jaiak, askatasunarekiko eta aniztasunarekiko errespetu osoarekin, eta guztiontzako jai parekideak eskatu nahi ditugu.

Eusko Alderdi Jeltzalea urte asko daramatza JAIETAN JAI leloa azpimarratzen Euskadiko herri eta auzo guztietako jaietan. Lelo hori bere horretan mantentzen da gaur egun ere. Eta Getxon, orain, hura txertatu nahi dugu uda honetan udalak gauzatuko dituen



berdintasunari, aniztasunari eta errespetuari buruzko kontzientziazio-, arreta eta babes-ekimenetan.

Duela hiru urte egin genituen gogoeak mantentzen ditugu: Getxon erreferente izan gara eta orain ere bagara berdintasunaren alde egindako lanegatik, eta emakumezkoen eta gizonen arteko errespetu zein bizikidetzan ere eredu izan nahi dugu. Getxok lanean jarraitzen du "emakumeak espazio publikoan askatasunez ibil daitezten eta hori libre erabil dezaten, nahi beste kaletik lasai ibili daitezten, eta sexu-harremanak norekin, noiz eta nola izan nahi dituzten erabaki dezaten. Hitz batez, emakumeen nahia erabat errespetatzen duen gizartea lortzeko". Getxoko Udaleko eragile eta estamentu guztiek jarraitzen dute arau hori eta, noski, une honetan gogorarazi nahi dugu haxe azpimarratze aldera: EZ BETI DA EZ.

Getxon, eraso sexistei planto! Bakarrik bai da bai! Eraso sexistarik gabeko eta indarkeria LGTBifobikorik nahiz arrazistarik gabeko jaiak nahi ditugu! JAIETAN JAI



## KANPO-AUDITORETZA ETA ZABORREN KONTRATUA



Getxoztarrok zortzi urte daramatzagu garbiketa eta zabor-bilketako zerbitzu eskasa jasaten, eta horren ondorioz asko areagotu da gure kaleetako zikinkeria. Enpresa adjudikaziodunak zortzi urte daramatza kontratua bete barik, Getxoko Udalak, arduragabekeriak, pleguetan hitzartutako baldintzak betetzeko eskatu ez duen urte-kopuru bera, alegia; hala, ez zegozkion kostuak ordain-

du ditu. Guztiok harritu ginen kontratua amaitzeaz zegoenean, 2022an, gobernu-taldeak hura luzatzea erabaki zuenean. PP taldeko kideok eskatu genuen kanpo-auditoretzako enpresa bat kontratatzea azter dezan, batetik, zein izan den betetze-maila eta, bestetik, itzuli beharko ez litzatekeen kontratu horrengatik udalak behar baino gehiago ordaindutako kostua #esnatuGetxo



## JAIETAN ERASO MATXISTARIK ETA BELDURRIK EZ!



Pozten gara aurten jai herrikoiak bultzatuko direlako, jai batzordeen lan militante eta nekazinarri esker. Zoriturrez, jaien itzulera ere kezka bizi dugu, eraso matxistak ere gerta daitezkeelako. Uztailaren 21ean Algortako Mugimendu Feministak antolatu-

tako agerraldian parte hartu genuen, ozen aldarrikatzeko Getxoko jaietan ez dugula inolako eraso matxistarik edo beldurrik onartzen. Jai herrikoia, euskaldun, seguru eta askeak nahi ditugu auzokide guztientzat. Denon erantzukizuna da hori bermatzea!



## INDARKERIARIK GABEKO JAIK

Pandemia dela-eta Getxon bi urtetan jai herrikoiak ospatu barik egon ostean, gogo handiz ekingo zaie gure auzoetako jaiak. Gozatzeko eta ospatzeko ilusio horrek ezin du inola ere eraso matxistak areagotzea eragin. Horrenbestez, PSE-EE taldeko kideok, Berdintasun Zerbitzuaren kudeaketa oinarri hartuta eta beste udal-arlo batzuekin koordinazioan arituz, Getxon jai seguruak sustatzeko kanpaina bultzatu dugu. Uste dugu denon ardurak dela eraso matxistak eta indarkeria LGTBifobikoak nahiz arrazistak saihestea. Mugimendu feministak ere hartu du parte aipatutako kan-

painan, bai eta ostalaritzak nahiz jai-batzordeek ere, indarkeria matxistak prebenitzeko eta horien gaineko sentibilizazioa bultzatzeko oso eragile garrantzitsuak izanik. Hori dela eta, indarkeria matxistei aurre egiteko prestakuntza eta informazioa eskaintzen ditu, bai eta plantoaren logoa daukan hedapen-materiala ere. Sentibilizatzeko gain prebenitzeko helburua duten tresnak ere hartzen ditu barne kanpainak, hala nola anezka-autobusak. Eskerrak eman nahi dizkiogu Aldundiko Berdintasun Sailari, informazio-furgonetarekin kanpaina sustatzearren.



## GARBIKETA ETA LOREZAJINTZA: LAN-DUINTASUNA EXIJITZEA

Udaleko Garbiketa eta Lorezajintza Zerbitzuetako langileak lanez gainezka daude beren lan-baldintzak okerragotu izanaren ondorioz eta baja-egoerak estaltzeko ordezko langilerik ez jartzearen; horrek guztiak eragina du Getxo kaleetako garbiketan. Enpresa adjudikaziodunek hitzarmenak negoziatzea baztertu dute eta, hortaz, lantaldeak antolatzen ari dira ukatzen ari dizkieten lan-esku-

bideak aldarrikatze aldera. Garbiketari dagokionez, Laneko Ikuskapenak zenbait arau-hausteren berri eman du jada. Zein izan da EAJ eta PSEren erantzuna? Kontratua luzatzea. Guk horren aurka bozkatu genuen, noski. Lanean jarraituko dugu langileei eskuratutako lan-baldintzak ukatzen dizkieten enpresak babesteari eta sustatzeari utz diezaion udalak. [elkarrekinpodemos@getxo.eus](mailto:elkarrekinpodemos@getxo.eus)